

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 17an hartutako erabakiaren laburpena; bertan deitzen baitira 2020-2021 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza-Zerbitzuaren hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako laguntzen deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak**

BDNS (Identif.): 516850

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke.

#### **Lehena. Onuradunak**

Derrigorrezko Hezkuntzako ikaskuntzak eskaintzen dituzten Vitoria-Gasteizko ikastetxeak izango dira deialdi honen hartzaileak, betiere, ikastetxe horietako ikasleek (guztiek edo batzuek) 2019-2020an Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak antolatutako hezkuntza-programetako batean parte hartzen badute eta, horrez gain, garraio kolektiboren bat erabili behar izan badute beren ikastetxetik programa gauzatu den tokira joateko edo alderantzizko bidea egiteko.

#### **Bigarrena. Helburua**

Hauxe da diru-laguntzen deialdi honen xedea: 2020-2021 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak antolatutako hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeei beren gastuetan laguntzea, ikasleak garraio kolektiboetan garraiatzeak eragindako gastuetan, zehazki.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaile espezifikoak**

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko uztailaren 17ko erabakiaren bitartez onetsiak; ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdiari 15.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea oinarri hauen deialdiri dagokion testu-zatia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2020ko urriaren 30era arte egongo da irekita (egun hori ere barne). Eskabideak epez kanpo aurkeztea diru-laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 17an

*Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE**